

Urte osoari gainbegirada

Urriaren bukaeran elkartu zen EEBBeko Tucson hirian *Amerikako Astronomia Elkarteko Planeta Zientzien Aditu Batzordea*, puntaren puntan dabil-tzan 600 ikertzaile inguru biltzen dituen. Urtero biltzen da Batzordea eta ihardunaldien amaieran plazaratu ohi duen txostenak urtean zehar astronomiak sortu dituen albisteen balio zientifikoa berresten du. Nola, labait esatearren, txostenean agertzeak gertakari horien sinesgarritasuna onestea dakar.


Aurtengo txostenak atal honetan aipatu izan ditugun zenbait aurkikuntza biltzen ditu. Labur bada ere, hona hemen Adituen Batzordeak goraipatu dituen iharduerak.

Neptuno planetaren 16 orduko errotazio-higidura jasotzen duen pelikulari aipamen zabala

egin zaio aurten; Hubblek eta NASAREN infragorritzko teleskopioak jasotako irudiei esker osatu da aipatu pelikula eta garbi jasotzen ditu, modu grafikoa, planetaren hegoaldea astintzen duten indar handiko haize-boladak.

Urteko albisteei errepa-soa emanez, Martitzerrako bidean abiatu diren eta aurki espazioratuko diren espedizio ugari berri ere jasotzen du txostenak. (Informazio gehiago: *Elhuyar. Zientzia eta Teknika*; 113. zenbakia). Hirugarrenik, Jupiterren Ganimeses satelitearen inguruan oxigenoa duen atmosfera aurkitu izanak ere leku handia hartu du txostenean; bertan esaten denez, Jupiterren Europa sateliteaz dugun informazioak Ganimesesen gertatzen ari dena hobeto ulertzeko bidea eskainiko du. Eta, azkenik, bilera burutzen ari zen egunetan, Geof Marcy eta Paul Butler ikertzaileek planeta berri bat aurkitu dutela

Jupiterren Ganimeses satelitearen inguruan oxigenoa duen atmosfera dagoela berretsi du John Hopkins Unibertsitateko ikertzaile-talde batek. Batzuen iritziz, bizi-egiturarik egon liteke bertan, baina ikertzaileek behin eta berriro esan dutenez, oraingoz ezin daiteke horrelakorik baieztatu. Tucsonen buruturiko bileran luze hitz egin da aurkikuntza berriari buruz.



Gizakiak berez sortzen duen antitronbina III substantzia ahuntzek sortzeko modua aurkitu dute Estatu Batuetako Genzyne Transgenics enpresakoek.

iragarri zuten. Zehatztasun handirik ez zuten eman, baina itxura guztien arabera, Lurratik 85 argi-urtera legoke planeta berria.

Ahuntzak sendagaiak egiteko

Genzyne Transgenics enpresak Estatu Batuetan, Massachusetts-eko baxerri batean, ahuntz bereziak hazten ditu sendagai transgenikoak lortzeko. Produktu transgenikoa sortzeko, zientzilariek eskuratu nahi duten produktua gizakiarengan fabrikatzen duen ADN-zatia animalien fetuei txertatzen diete. Gero animalia hazten denean, lortu nahi den giza produktua produzitzen du.

Sistema horren bidez ahuntzek gizakiaren antitronbina III substantzia sortu dute eta horixe sartuko diete Londresen hogei bat bolondres osasuntsuri ikerketa burutzearren. Sendagai honek gaur egun erabiltzen den proteina (antitronbina plasmatikoa) ordezka dezake.

Atomo hutsak betetzen

Atomo hutsetan elektroioak ez dira nukleoaren inguruan barruko geruzetan egoten; kanpoko geruzetan baizik. Atomo hutsak atomo normalei dituzten elektroio guztiak "kenduta" fabrikatzen dira. Gero "superioi" hauei elektroio-iturri bat ipintzen zaie ondoan eta atomoen kanpoko geruzak baino ez dira betetzen elektroioz.

Dena dela, horrela lortutako atomo hutsak bere ohizko egoerara itzuli nahi izaten du eta elektroioak jauziak egin ez geruzaz geruza jais-tzen dira, aldi bakoitzean fotoiak jaurtikiz. Paris VI unibertsitateko Jean-Pierre Briand zientzilaria eta bere taldeki-deek, ordea, jauzi horiek metalen, erdieroaleen eta isolatzaileen atomoetan desberdinak direla ikusi dute. Atomoak desberdin betetzen dira, beraz, eta fenomeno horrek gainazalak bereizteko balio dezake.

